

# ARRASATE

MARAÑON GESALAGA EDURNE  
LORAMENDI KALEA, 06-10.C  
ARRASATE

2

# PRESS

Arrasate 1989ko Azaroa 3 39. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



## Elena

*Atzeratuen eguneroko  
gorabeherak*

## KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

\* Odontokogia orokorra

\*Protesi finkoa

\*Protesi mugikorra

\*Haur eta helduentzako ortodontzia

ITURRIOTZ KALEA, 7 BIS-BEHEA. TFNOA: 79 73 88 ARRASATE



## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011

### Gurutze gorria:

Bergara .....	765576
---------------	--------

### DYA

Antzuola .....	766291
----------------	--------

### Anbulatorioak

Arrasate .....	791357
.....	799722
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

### Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak .....	458744
------------------------------	--------

### Udaltzaingoa:

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

### Ertzantza:

Arrasate .....	797199
----------------	--------

### Suhiltzaleak:

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	782800

### Matxurak:

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581
Gasa .....	900 400 523
.....	79 78 44
.....	79 76 78

### Garraioak:

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

### Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	798777
--	--------

## 3 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "La Vida de Brian" Novedades: "Indiana Jones y la última cruzada" 10,30etan.
- Naturari buruzko zine zikloa: "Birziklapena, etorkizuneko teknika" 15', "Steiner tailfatzalearen estasi handia" (Eski-saltoa) 56'. Amaia antzokian, 8etan.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz. Madalena.

## 4 LARUNBATA

- Zinea: Alai: El sendero de la traición Novedades: "Indiana Jones y la última cruzada" 5, 7,30, 10,30etan.
- Sobiet Batasuneko Abesbatza: Taillin-eko Maistra koroa. Amaia antzokian, 7etan.
- Amches antzerki taldea: "Se infiel y no mires con quién". 10,15etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. S. Andres.

## 5 IGANDEA

- Zinea: Alai: El sendero de ... Novedades: "Indiana Jones y la última cruzada" 5, 7,30, 10,30etan.
- Amches antzerki taldea: "Enseñar a un simberguenza". 10,15.

- Goardiako farmazia: Ruiz Torres. Ferrerías

## 6 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: El sendero de la... Novedades: "Indiana Jones y la última cruzada" 7,30etan.
- Amiches antzerki taldea: "La malquerida". 10,15.
- Goardiako farmazia: Santiago Español. Iturriotz.

## 7 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: El sendero de la... Goardiako farmazia: Anriches antzerki taldea: "Dueña y señora". 10,15etan. M. Corcuera. Elcano.

## 8 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: ez dago sesiorik.
- Amiches antzerki taldea: "La ciudad no es para mí". 10,15etan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

## 9 OSTEGUNA

- Zinea: Alai: Grita libertad
- Zine-klub. Dublineses. Zuzendaria: John Huston. Amaia antzokian, 8,30etan.
- Amiches antzerki taldea: "Dos paletos en Madrid". 10,15etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. San Andres.

## IKASTAROAK

**Orientazio Ikastaroa:** Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta, azaroaren 4 eta 5ean Leizarango aterpean.

**Oñatiko Udal Euskaltegian:** Larunbatero EGA ikastaro trinkoak. Lau ordu.

## BILALDIAK

**Hornes-Balguerri-Balmaseda:** Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta hilaren 12an. Irteera goizeko 7etan Portaloitik. Izen emateko azken eguna asteartea, hilak 7, Besaiden, Monten edota Iratin. 700 pta. Gastetxoek 350 pta.



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Arrasate pasealekua, 3-Bis, behea.  
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza  
Bego Zubia

**Publizitatea:** Josune Biteri

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix  
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki  
Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmelo  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Mikel  
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta,  
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,  
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila  
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion  
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo  
Uribarren, Iñaki Aranburu,  
Hankamotzak.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Harpidetzak:** Arrasate pasealekua 3  
Bis, behea. 79 71 64

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 4.500 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.



## Ametsak amets dira

Poetak esango zuen bezala. Baina gaurkoa ez doa literatur ildoetatik. Irakurleak ezagutuko duen legez, aurtien berrogeitamar urte betetzen dira Sigmund Freud neurologo eta psikiatra hil zenetik. Freud aipatzen dugunean psikoanalismoa aipatzen ari gara, berau baitugu teoria berritzaile horren sortzailea.

Zeinek ez du Ediporen konplexuaz edota umearen sexualitateaz ezer aditu?

Entzutetsu bihurtu zaigun psikiatri-terminologia mota ere austriar jakintsu horri zor diogu, zeinek bere liburuetan askotan zientifikoarena baino goi mailako nobelistaren antz zuzenago erakusten duen. Bere teoriak azaltzeko erabili zuen hizkera errazak mesede haundia egin zion Freudi, haien hedapenerako. Teoria horien eragina dela eta, zientzia modernoaren tontorrean ipin daiteke austriar judutarra, Darwin, Nietzsche, Einstein, Marx eta beste banaka batzuekin.

Unibertsitari ikasketetan Freudekin topo egin genuenean -hogeitama bi urte dira- ordura arte guretzat

tabu izandako gaiaz jabetu ginen. Horrek ez du esan nahi, ezta gutxiagorik ere, harrez geroztik gure kalamitateak gaindituta geratu zirenik. Ez. Jesuitek bazekiten nola erabili behar gintuzten psikiatra hura jaingo bilaka ez genezan. Dena den, gaztaroaren emankortasunean murgil eginez eta batez ere "Ametsen ulerkuntza" izeneko liburuaren gidaritzapean mundu berri bat agertu zitzaigun.

Psikiatria klasikoak bazterturiko konzeptuak haizeratzen zituen Freudek, inolako aurreritirik gabe. Azpikontziente bezala bataiatu-koan pilaturiko trauma-bizipenak hipnosiaren bidez aztertuz, sexu-edukin itzela zutela ohartu zen. Hortik, ametsaren adierazpena uler- tzeko, herri-jakintza nahiago izan zuen medikuarena baino. Horrek, ene ustez, Freuden jarraitzaile zintzo bilakaerazi gintuen eta bere liburu- tan barrena abiarazteaz gain... hurkoari bere ametsen esangura bi- latzen laguntzera bultzatu gintuen, gure inozotasunean.

*Jose Mari Velez de Mendizabal*

**UGARAN**  
jatetxea

Garagaritza auzoa - t/797658 Arrasate

**enpresa  
bazkariak  
eta famili bilerak**





**gili gili**

Iturriotz, 9 Tfnoa:799457

**GIROA AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**Maiatz**

**ILEAPAINDEGIA**  
mixtoa

Elkano 38, (Musakola)  
Tfnoa: 79 58 78  
ARRASATE



**BELUN TABERNA**

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa,z/g Tfnoa:796114

**KAJOI TABERNA**

erdiko kale 22  
Tfnoa: 79 32 27

## Kotxea aparkatu ezinik

Aspaldi honetan lanetik itzuli eta erdigunean aparkatzen ordu erdi pasa galtzen dudanez gutun hau idaztera animatu naiz. Arrasaten aparkaleku arazoa aspaldiko kontua dugu, baina Ferial auzoan pilotalekua egiten hasi direnetik areagotu egin da auzia.

Duela zenbait hilabete komunikabedeetan esamez handia sortu zuten herrian egin behar diren lurazpiko aparkalekuek. Aparkaleku hauek beharbada, arazoa nolabait konponduko dute, baina nere eritziz erdialdean bizi garenok lehengoetan segituko dugu. Ez dakit arazo hau nork konpondu behar duen, Udalak seguraski, baina behin betikoz zerbait egiten hasteko ordua da. Orain txarto bagaude nola egongo gara urte gutxi barru?

J.M.

## IMiko kontuak

Lehenengoz IMira hurbiltzen den edonork nik hara joan nintzen lehen aldian jaso nuen ainako harri-dura hartuko duelakoan nago.

IMI, Eusko Jaurlaritzak ordenadoreak erabiltzen ikasteko jarritako proiektua dugu. Urtean zehar, IMI zentroetan zenbait ikastaro antolatzen da. Hauetako ikastaroren bat aprobetxatu ezean norberaren kontura ikasi beharra dago, eskura aurkituko ditugun bideoen bidez eta han dauden monitoreen laguntzaz. Hau horrela ikusiz gero nahiko polita dirudi, baina...

IMI zentroetan aurkituko ditugun ordenadoreak zentroak ireki zirenekoak dira, ez dira berritzen joan eta zaharkituak geratu dira. IMIra joaten den jendeak askotan idearik ere ez duenez, ordenadoreak oso erraz hondatzen dira eta ez dira berritzen.

Ordenadoreak erabiltzeko programa ugari dagoenez, IMiko monitoreek ezin dituzte guztiak menpera-

tu, eta askotan programa baten oso aditua baina bestetan zeharo ezjakina den jendearekin egingo dugu topo.

IMI zentroetan aurkituko ditugun programak birus-ak jota daude, beraz, hara ezin eraman daiteke norberaren programarririk izorratu egingo zaigu eta.

Guzti hauek kontutan izanda, arrasatearrok duintasun handiagoko IMI zentroaren beharrean gaudela uste dut. Edozein modutan proiektua aztertu eta beste era batean antolatu beharko litzatekela uste dut.

G.G.

## Hauteskundeak eta Kanpaina

Ez dakit zuek, baina ni behintzat nazkatua nago politikariekin, kanpainarekin, hauteskondeekin, balorazioekin.

Agian ordua heldu zaie alderdiei modu berriak asmatzeko, ideia berriak lantzeko. Mitinetan geroz eta jende gutxio agertzen da, telebistan izugarritzko plastada ematen dute, eta kartelak! Lotsagarria da nola jartzen dituzten hiri eta herrietako paretak beraien karteletan!

Gainera gure botua nahi dute?

Jaione Ibarra

## Stiff Little Fingers

Azaroaren 25ean Irlandako taldea izango dugu Arrasateko kiroldegian. Kontu garrantzitsua iruditzen zait, gutariko gazte asko eta askok makifa bat ordu eman ditugulako Stiffen musika entzuten.


Beldur naiz, euskaldunak ez direlako Arrasate Pressek agian ez diela behar bezalako ongi-etorria eman-go. Koadernillo berezia ez bada ere, asko poztuko nintzateke zuen orrietan beraiei buruzko lantxo bat aterako bazenute.

Aurrez mila esker.

Patxi



# Joaten zara Kanposantura Domu Santu egunean?



**Jesus Jauregi**

Bai, urtero, han dagoen jendeaz oroitzen garelako eta ez ahazteko.



**Piedad Balentin**  
(etxeakoandrea)

Bai, sarritan joaten naiz. Maite izan ditudan pertsonak ditut han, sarritan etxean baino oroimen hobek aurkitzen ditut kanposantuan.



**Beronika Garai**  
(langilea)

Ez, txikitari joaten nintzen baina orain ez, ez dut ohiturarik.



**Aitor Elizaran**  
(irakaslea)


Bai, bueltatxoren bat eman ohi dut, ohitura dut eta.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9

ESKORIATZA-Arana, 13



# Obea

**SEGURITATEA  
ZURE  
ZERBITZURA**

Mantenimendua  
Berriztapena  
Ilogailu eta jasogailuen  
muntala

**ESKA EZAZU  
AURREKONTUA**

Bulego zentrala: Jose Luis Iñarra  
P., 22 Tfnoa: 79 12 08  
ARRASATE

*Jesus Giraldo*

## LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia  
(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Previassa, Adeslas  
(Muface) eta partikularrak  
Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

# Memesa

## 79 42 22



“Mondragoeko herriak, bere seme Sebero Altube goratu nahirik, plaza bat eskaini dio. Eta idazkunea horrela ezarri diote: “Sebero Altube enparantza”. Hori ikusi nuenean, esan ere egin nuen neure kolkorako: “Hau dek hau! Gizona eta gizonaren irakaspenak goratu nahi diren unean berean, traizio egiten zaie...””.

Euskaldun arruntaren aho-mihitan *plaza* hitza entzuten dugu. Euskal literatura zaharrea ere maiztasun handiko hitza da. Hor dugu Detxepare lehen poetaren oihua: “Heuskara, ialgi adi plazara!”. Axularren *Gero* eskutan hartzen baldin badugu, han *plaza* hitzaz topo egiten dugu. Euskaldun arruntarentzat oso ezagunak dira *plaza* hitzetik sortzen diren beste hauek ere: *plazaratu*, *plaza-gizon*, *plazatxo*, *Plazaola*, etab. (...)

Zergatik ez baketan utzi hitzok, bakoitza bere tokian eta esanahian, Altubek aspertzeke aldarrikatzen zuen bezala?”

(*Aita Luis Villasantek, “Euskararen auziaz” liburuan*)

“Ez dut ulertzen Atotxako zaletuen jarrera. Hona natorren bakoitzean kanpotarra bainintzen hartzen naute. Gogora erazi nahi nieke Aretxabaletakoa naizela eta Aretxabaleta Gipuzkoa dela. Hemen nola hartu izan nauten ikusita, esan dezaket Madrilén Atotxan baino hobeto hartzen nautela”.

(*Andoni Zubizarreta, Bartzelona F.T.ko atezainak DV egunkarian*)

“PSOE Mondragoeko lehen partidua izango da eta alkatea kontuz ibil dadila, oso jodiduta dauka eta”.

(*Jose Luis Lana zinegotziak Casa del Pueblon*)

**Zein da gure bailaran gazte eta haurrei animazio soziokultural arloan eskaintzen zaien ekintzen egoera Catalunyakoarekin parekatuz?**

Kontutan izatekoa da, nik Bartzelonan lan egiten dudala eta nire eritziz behintzat, edozein hiri handi ezin pareka daiteke herri edo eskualde batekin. Guk Bartzelonan nahiko eskaintza on eta ugariak ditugu, gazte, haur zein helduentzat, hobetu beharrekoak diren arren.

Deba Garaia bailaran, gai honek irtenbide oso egokia izan dezake. Ludotekak, haurrentzako liburutegiak, animazio sozio kulturala..., horren inguruan ekintza ezberdinak antolatzen hasteko garaia da.

Kontutan izanez gero behintzat, Eskoriatzako Irakasle Eskolak urtero irakasle-kopuru garrantzitsua kaleratzen duela, eta gaur egungo egoeran, haurrak gero eta gutxiago jaiotzen direnean, etab. irakasle guzti horiek ezin izango direla irakaskuntzan. Irakasle horiek beste ekintza hauetan—ludoteka, haur-liburutegiak—ari izan beharko dute.

Bartzelonarekin pareka daitekeen beste alderdik ere badu bailarak, guk katalana dugu ez hizkuntza soiltzat, katalana, hizkuntza eta kulturatzat baik. Zuek euskara duzue eta hori ere landu beharrekoa da.

Beraz, bailaran dituzuen aukerak aprobeztatu behar dituzue, hau bait da une egokia, bailarako jendeak egin ezean, kanpotik etorritakoez egingo dute eta.

Angel Mestres  
Bartzelonako “Transit” zerbitzu enpresako kidea



## Gorosti jatetxea

OTURUNTZAK  
AGURRAK  
NEGOZIOTARAKO OTORDUAK

IREKI BERRIA

Arima zurl 2, Tfnoa: 79 20 02 ARRASATE



Otalora 2, ARRASATE







Fotokopiak  
Enkuadernazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta  
Ferrerías, 23  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



HERRIGINTZAN

CAJA LABORAL POPULAR  
LAN KIDE AURREZKIA



- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik dagoen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bul-tzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

1959	1988
Lehen Bulegoa	190 Bulego
Lehen Bezeroa	725.000 Bezero
Lehen Milioia	221.000 Milioiko aurrezkia

...29 urtetan soilik.

- ▶ Zatoz elkarlanean parte hartzera.

**Horrexegatik,  
Lan Kide Aurrezkia  
"Euskadiko Kutxa" da**



Euskadiko Kutxa



**PROMOCIONES MARKULETE, S. A.**

# **NABE INDUSTRIALEN SALMENTA**

## **Mendi-Etxebarrin**

**445 m<sup>2</sup> tik aurrera sarbide zabalarekin**

- \*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- \*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- \*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



**FAGOR** 

# **iKER**

**SUKALDE  
LILURAGARRIAK**

**ARRASATE**

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42

Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43



## prentsaren begia

### QSTIRALA 28

**CORREO:** "Hainbat enpresak azaldu dute interesik Arrasaten lurrazpiko garajeak ustiatzeko"

**DEIA:** "Arrasate 89 lehiaketarako lanen aurkezpena"

**DV:** "Udalaren gestioak Gorostizako etxebizitzaren arauak sustatzeko"

**EGIN:** "Esnaola, Altuna eta herriko Alkatea hizlari gaurko mitinean".

### LARUNBATA 28

**CORREO:** "Arrasaten eraikitzen ari diren sustapenerako etxebizitzaren eskatzaileetako asko baztertua gerta daiteke"

**DEIA:** "Aramaion pintura lehiaketa"

**DV:** "Hogeitahiru alegazio, bihar, hautesmahaietatik 'libre geratzeko'"

**EGIN:** "AEDk bere batzar nagusia bazkide guztiekin egin nahi du"

### IGANDEA: 29

**CORREO:** "Arrasateko Udalak bideratuta du aurtengo aurrikusitako inbertsio berrien %43aren exekuzioa"

**DV:** "'Mondra' prest Atxabalpen lehenengo garaipena lortzeko"

**EGIN:** "Drogomenpekotasunerako zentruaren proiektua Gobernu-Batzordean aztertuko"

### ASTEARTEA 31

**CORREO:** "Arrasateko berrogeitamar auzokidek eta Aretxabaletako 220ren batek daukate dagoeneko gas naturalaren zerbitzua"

**DEIA:** "'Natura zinearen' ziklo berri baten titulua"

**DV:** U-29 Arrasaten: E-15ri buruz udalbatzako alderdi guztiek gora egin"

**EGIN:** "Ezezagunen batzuk Zuk Nahi tabernaren fatxada tirokatu"

### ASTEAZKENA 1

**CORREO:** "Arrasateko Udala eta Arrasate Musikal eskualderako musika-kontserbatorioa sortzea aztertzen ari"

**DEIA:** "Kultura alorrean iharduera-programa berria"

**EGIN:** "CCOO eta KT taldeek Copreciko MTNren aplikazioa salatu"

**GAUR E** "Arrasaten hil honetarako zenbait kultur ekintzataratu deitu"

### OSTEGUNA 2

**CORREO:** "Informatika prozesuak urte bukaeran Arrasateko Udalean egiten den lanaren %80a beteko"

**DEIA:** "Aramaioko pintura-lehiaketa zarauztar batek irabazi"

**DV:** "Hosteleria gremioa ez dago konforme iharduera horiek arautzen dituen Ordenantza berriarekin"


**EGIN:** "J. L. Arejolaleiba: 'AED erreferentzia puntu bihurtzen ari da Euskal Herrian'"

## Usteak uste...

U-29ko gauean denak zeuden pozik, edo zeudela ematen zuten behintzat. Denak ezin alai egon, hala ere. PSOE izango da motibo gehien duena baikor egoteko, Arrasaten (711 boto gehiago) izan dituzten emaitzak onak baino hobekiak izan direlako. PP ere alai egon daiteke, zinegotzi bat irabaziko bait luke. Dena den, orain arte behinpein, udal hauteskundeetan desagertu egiten dira popularrak. HBkoek txaplieguak jaurti zituzten, 62 botoren irabazpena ospatzeko. Lehen indarra izaten segitzen dute, eta zinegotzi bat irabaziko lukete, baina horiek ez dira nobedadeak, europarretan ere horixe lortu bait zuten. EAJkoak irribarretsu egongo dira, EAekin duten lehia horretan Arrasaten irabazle irten direlako. EEkoak ez zeuden oso alai igande gauean, akaso kanpaina hasierako inkestek urregoria prometatu zitelako. Txiripaz ez lukete zinegotzi bat galduko - boto bati esker- PSOEren mese-detan. EAKoak izango dira zer pentsaturik handien izango dutenak, emaitza hauen arabera udal hauteskundeetan hiru zinegotzi galduko lituzkeelako.

Oraindik ez da argitu igande goizean Mondragoeko erdialdeko taberna baten kontra bota ziren tiroen arazoa. Arrasateko ertzain bat izan liteke tiroen egilea. Harrigarria da, baina Ertzaintzak oraindik ez du bat ere argibiderik eskaini. Zer esan nahi du horrek?

Joxe Aranzabal



# ARRASATE KIROLAK

KIROLAREN ETORKIZUNA ESKU ONETAN DAGO!!!

Kntzasifo kalea 8, Tfnoa: 79 46 12 ARRASATE





## Sobietar abesbatza Amaian

### Larunbatean, emakumez osatutako estoniar abesbatza

Larunbatean, Amaia antzokian, emakumez osatutako Sobiet Batasuneko abesbatza entzuteko aukera izango dugu, Tallinn-eko Maistra Korua, hain zuzen. Abesbatza hau, 1931n Gustav Ernesaks maisuak sortu zuen eta handik aurrera urtero urtero hartu izan du parte Estoniako abesti jaialdian.

Tallinnek Maistra Korua, Sobiet Batasunean nahiz atzerrian ari izan da kontziertoak ematen, Finlandia, Hungaria, Alemaniako Errepublikak Demokratikoa, Kuba eta Frantzia, besteak beste.

Koroak zenbait sari ere irabazi izan ditu. Ene Lillepark aritu izan da

zuzendari lanetan 1971tik aurrera eta ahots prestaketa Ludmilla Issakovaren ardurapean dago.

Larunbatean eskainiko diguten saioa musika klasiko eta Estoniako musikaz osatua egongo da. Ekitaldian Brahms, Gastoldi, Tormis, Magi etab.en lanak entzuteko aukera dugu. Saioa Arrasateko Kultura batzordeak azarorako antolatutako ekitaldien barne kokatu behar da. Hau izango da lehenengo aldia Arrasatera Sobietar Batasuneko kororen bat datorkigula eta abesbatza hauek izaten duten arrakasta kontutan izanik, Amaia antzokia beteko dutelakoan gaude.

### Ekitaldi bikaina Gorosarri omentzeko

Larunbat gauez, Eskoriatzan, Aretxabaletako korua, Eskoriatzako Gorosarri abesbatza eta Arrasate Musikal orkestrak elkarrekin parte hartu zuten, Eduardo Gorosarri musikagile Eskoriatzarraren mendurrena ospatzeko burutu diren saioei amaiera emanez.

Kontzertuan entzun ahal izan genituen musika-lan guztiak Gorosarrirenak izan ziren, ekintza berezi honetarako Juan Arzamendi arrasatearrak moldatu eta prestatuak.

Kontzertuak bi atal izan zituen, lehen atalean abesbatzek eta orkestrak beren aldetik bakarrean aritu ziren eta bigarrean guztiak elkarrekin.

Taldeek elkarrekin jotzen zuten lehen aldia izan da, kontzertuak jakinmin handia sortu zuen bailaran eta saioa arrakasta osoz burutu zela esan behar, jende ugari hurbildu bait zen bertara.

### Antzerkia Aretxabaletan

Amiches antzerki taldeak larunbat honetan hasita aste osoan zehar emanaldiak eskainiko ditu Aretxabaletan. Egunero antzerki-lan desberdina ikusteko aukera izango dugu, gaueko 10,15etan hasita. Antzerki talde honek irrifar eta algara ugari atera araziko die ikustera hurbiltzen direnei.



Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK  
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian

Propietate inmobiliarioaren agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmenta eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ

Iturriotz kalea 11, Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

**TXITXINPE**

**BEREZITASUNAK**

Kafea, ardoak, urdaitegia,  
frutu lehorrak

Arrasate Pasealekua 33,  
Tfnoa: 79 67 76 ARRASATE




**J. M.  
Heriz**

axuleiuk

Porcelanosa, Azuvi, Pamese...  
Otalora Lizentziatua. Arrasate





## Roneoko etxebizitzak

**L**au Kale" S.A. enpresak sustatuta U.13.1, U.13.2 eta U.12.1 unitateei buruzko AA.SSen elementuak aldatzeko testuaren onespena jorratuko da ostiraleko plenoan.

Honek san nahi du, gaur egun Roneo enpresako tailerra kokatzen den tokian etorkizunean etxebizitzak eraikiko dira.

Babes Ofizialeko 172 etxebizitza

izango dira hain zuzen ere bertan egingo direnak, eta noski, etxebetetan denda ezberdinak kokatuko dira.

Argazkian azaltzen den aurreproiektua, Blas Urkizu Zabaleta arkitektoak egin zuen. Dena den, aurreproiektua besterik ez da. Oraindik ere erakusketa publikoa, lizentziak, obrak hasteko baimeak, etab. lortu gabe daude. Beraz, ezin datu gehiegirik aurreratu.

Guztira, 26.602 m koadro hartuko ditu eraikuntza berriak. 9.111 m koadro gaur egun publikoak direnak (Iehen Goardia Zibilaren koartela zégoen tokia), eta beste 17.491 gaur egun partikularren eskuetan daude. Partikular horiek, besteak beste, honakook dira: Roneo, Donato Amozarrain, Union Cerrajera, Mendikute anaiak, Abarrategi Berezibar eta Biteri kaleko 6 zenbakiko jabekideak.



### LORAMENDI

Iraupeneko ski-kirolak oso onak eta ekologikoak, orain urte osoan zehar egin dezakezu

ROLLERSKI-LORAMENDI

Hego Euskalerrirako inportatzailea

### KIROLAK



**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale, 11 Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE

**EPELDE**

argazki denda

Iturriotz 24





## Tiroketa igande goizaldean

### Arrasateko ertzain bat erasoaren susmagarria

Igande goizaldeko 6,45etan, norbaitek lau tiro jaurti zituen 'Zuk Nahi' tabernaren aurka, nahiz eta momentu horietan itxita egon. Oraindik ere gauzak argitu gabe dauden arren, badirudi ekintza honek ordu batzuk lehenago 'Ostarku' diskotekan gertatutako iskanbilarekin zerikusirik izan dezakeela.

Laurak aldean, 'Zuk Nahi' tabernako jabearen anaiak eta izatez Arrasatekoa den ertzain batek ekin zioten istituari. Hitz gogorak, eta halako batean ertzainak botila batekin eraso egin zion gazteari.

Dena den, gauzak ez ziren hor gelditu. Edanda edo, ertzainak pra-

kak jeitsi, alkandora hautsi eta bertan zeudenen aurkako mehatxuak ere esan zituen. Azkenean bertako zaindareiek kalera atera behar izan zuten.

Horraino egiaztatu ahal izan duguna. Hortik aurrerakoak, 6,45ak inguruan gertatutako tiroketaren inguruko zehaztasunak hain zuzen ere, egiaztatu barik dauden susmoak besterik ez dira.

Saiatu gara makina bat aldiz Erztaintzaz prentsa-bulegotik informazioa lortzen; baina ixiltasuna izan da erantzuna. Bitartean, zurrumurruak bolo-bolo ari dira zabaltzen herrian zehar.

### Kultur ekintza ugari

Arrasateko kultura batzordeak antolatuta kultur ekitaldi ugari ikusi ahal izango dugu aste honetan. Ohi denez, hilabete honetan ere, zineklub saioekin segituko dute eta hilaren 9an John Huston-ek hil baino hilabete gutxi lehenago zuzendutako *Dublineses* (hildakoak) filme ikusgai izango dugu. Filme honek oso kritika onak jaso izan ditu eta Oskar-etarako ere bi izendapen izan zituen. Pelikula hau Joyce-ren izen bereko nobelan oinarrituta dago; filmean bizitza eta heriotzari buruzko hausnarketa dakusagu era xume, baina bikainez.

Zine ekitaldiekin segituz, *Naturari Buruzko Zine zikloa* burutuko da Amaia antzokian. Ziklo honetan, ingurugiroak jasaten duen hondamena agertzen duten laburmetraia ugari ikusteko aukera izango dugu.

Aipatzeke ezin utzi, Jordi Bertran-en txontxongilo emanaldia, baina oraingoan umeei zuzendua egon beharrean, helduei begira egingdako txontxongilo emanaldia izango dugu hau.

#### Jaiotzak

Azpilikueta Karasatorre, *Andoni*.  
Urriak 20ean  
Gallastegi Azkarate, *Idurre*. 21ean.  
Uribarren Arrue, *Andoni*. 24an  
Murillo Martin, *Kelvin*. 26an.  
Concepción Cruz, *Maidier*. 28an.  
Juaristi Mendarozketa, *Xabier*. 30ean.



# comercial SUMOFIC, S.A.

## ZERBITZU INFORMATIKOAK

### ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK, STANDARak ETA NEURRIRA.

DATU-BASEAK

OFIMATIKA


MANTENU-ZERBITZUA

\*Ekipamendu eta programak

\*Telemandua

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR





## U-29aren ajeak

Arrakasta itzela *Arrasate Pressen* ale berezia

Goizeko bostetan kioskoetan zegoen U-29ko hauteskuduei buruz atera genuen orria.

Inork baino lehen eta Arrasateri buruzko informaziorik osoena, akats eta guzti, eskainiz plazaratu zen. Lau mila ale atera genituen, erositako edozein egunkarirekin batera, jendeak doan jasotzeko moduan. Lehen aldia zen egunkari formatoa erabiltzen genuela eta arrasatearrei gustatu egin zitzaizen, antza.

Partidu gehienek afariak antolatu

zituzten igande gauerako. PSOEkoek txanpainez egin zuten topa, Alkartetxean ere ez zen umorerik falta izan. Batzokian Pedro Urainek bertso saio ederra eskaini zien alderdikideei. Iratin giro gazi-gozoa zegoen eta Ezkertokian triste samarra.

Datu bilketari dagokionez, HBkoek erakutsi zuten sistema bilketarik eraginkorra. Datuak beste inork baino hobeto eta lehenago zituzten bilduta.

Noizko hurrengoak?


## Datuen zain



Iratin



Elkartetxean



Erkertokian


comercial  
**SUMOFIC, S.A.**

### PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,  
FOTOKOPIAGAILU,  
TELEFAX,  
etab.etan.  
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**





## Gas naturala zabaltzen

### Gas instalazioen 2. fasea onartu

Asteleheneko Gobernu Batzordeak Arrasateko gas sarearen bigarren faseari ekiteko Naturgas enpresari baimen baldintzatua ematea erabaki zuen.

Dagoeneko 50 familia dira Arrasaten gas naturala euren etxeetan jasotzen dutenak, denak Uriburu ingurukoak. Erabiltzaile hauek sarea egiteko aurrikusi diren hiru faseen lehenean sartzen dira. Lehen fasea osatzeko S. Juan auzoa eta Eskola Politeknikoaren ingurua falta dira, non azaroaren lehen astean jasoko bait dute gasa.

Bigarren fasean S. Andrés auzoa eta erdialdea, kasko zaharra ezik, sartuko dira. Honez gero 1.255 kontrato sinatu ditu enpresak bigarren fase honetarako. Hirugarrenak, azkenik, ez du egunik seinalatuta obrei ekiteko. San Juan auzotik hasi eta Musakola aldera zabalduko dira obrak.

Erabilpen industrialeko gasbidearen instalazioak eraikitzea ere onartu zen. Gas de Euskadi konpainiak egingo du lan hau eta Alejandro Altuna, Gureak, F. Aranzabal, Joma eta Roneora banatuko du gasa.

## “Arrasateko inperioa”

GEO aldizkariak, bere azken alean, erreportaia exotiko eta deigarri artean Arrasateri buruzko erreportaia kaleratu du, “Arrasateko inperioa” izenburupean. Erreportaiak, kooperatibismoaren jatorria azaldu ondoren, fenomenuaren gaur egungo egoera argitzen du. Arrasatek duen garapen eta ongizatea azpimarratzen du, zerbitzu arloan dugun eskasia nabarmenduz. Erreportaiak lau orrialdeko luzera du, koloreetan argitaratutako argazki ederrez apainduta.



**LASAGABASTER**

**Jantzidenda**

**Bertan izango duzu beti modako  
jantzirik onenen aukera zabalena**

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



# AEDren batzar orokorra

## AEDren eragina bailara eta inguruan zabaldu nahi

Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak asteartean, batzar orokorra burutu zuen Monterron kultur etxean. Batzarrean jende askok parte hartu zuen.

1988-89 kurtsoan elkarteak burututako ihardueren artean, Arrasate Press eta Umeentzako ekitaldiak izan ziren aipagarrien, lortu duten finkapena eta arrakasta direla medio. Bestalde, elkartearen literatur sustapenak —lehiaketak eta argitalpena—, kultur iharduerak —ekitaldi aipagarriena *“Un futuro para nuestro pasado”* liburuaren aurkezpena— eta sentsibilizazio iharduerak —eus-kalan, salaketa-txaloketa— izan duten aurrera pausua ere azpimarratu zen. Herriko zenbait ekitalditan elkarteak izan duen presentzia fisikoa ere azaldu zen, nahiz eta honetan elkarteak egiteko handia duela onartu.

Zuzendaritza batzordeak egindako balorazioa baikorra izan zen. Beraien ustez, AEDk, herri mailako euskararen aldeko elkarte bezala, erreferentzi puntua izaten segitzen duela adierazi. Dena dela, esparru elebakarrak sortzeko egin behar den ahalegin eta esfortzua azpimarkatu zen eta elkartearen barruan ematen ari den profesionaltasuna ondo ikus-



Mahaiburuan, sail desberdinetako arduradunak

ten badute ere, militantzia bultzatu beharri garrantzia eman zioten.

Elkarteak Udalarekin sinatu duen hitzarmenari garrantzi berezia eman zioten, hitzarmenak suposatzen duen errekonozimendu eta onarpen zabalak direla medio.

Datorren urterako ildo nagusi gisa, *Jazten* aldizkariarekin segitzeari, Arrasate telebista errealitate bihurtzea eta gune elebakarrak sortzeko nahia agertzen dira. Honez gain, jarrera pertsonalaren garran-

tzia azpimarratu zen, bazkideak elkartearen lantaldeetan parte hartzera animatuz.

Elkartearen estatutuak inolako arazorik gabe onartu ziren. Zuzendaritza batzordean zenbait berriztapen egin zen, hamar kide berri sartu zela-rik.

Batzarra burutu ondoren elkarte kideek afaria izan zuten Hostalean, jai giro ederra izan zuten bertsolari, txiste kontalari eta guzti.



### Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
 Jose M<sup>a</sup> Gomez doktorea  
 A. Otalora doktorea  
 A. Estomba doktorea  
 M<sup>a</sup> Jose Ruiz doktorea

*Anisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.*

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, besektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
 telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE



**Bonba mehatxuak**

Asteazken gauean Alai zineman hamarretan "La vida de Brian" filmea ematen ari ziren. Hamaikak aldera bonba mehatxua jaso, eta pelikula amaitu aurretik barruan zeuden guztiak kalera irten beharrean aurkitu ziren.

Aurreko astean ere antzeko zer-bait gertatu zen, haina orduan ikastetxeetan: Profesionalean, San Viatorren eta inguruko eskolatan hain zuzen ere. Horra non atera ziren neska-mutiko guztiak izugarritzko iskanbilaz.

**Aretxabaletako Koartela**

Orain gutxi Goardia Zibilak alde egin zuen Aretxabaletako koartelerik. Hutsik ikusi, eta herriko gazteei gaztetxetzat erabiltzea bururatu zitzaizkien. Larunbat arratsaldean sartu ziren bertara atzeko atetik, eta heldu bezain laster lehen ekintzak antolatu zituzten: Antzerkia, rock jaialdia, taberna...

Lau egun besterik ez dute barruan iraun, asteazken goizean Ertzaintzak kalera atera bait zituen han zeuden guztiak. Orain plenoari itxaron behar, orduan jorratuko bait du Udalak gaia.



**Txandaka**

**Ehizari ez!**



Clara Elkorobarrutia \*

Denok ezagutzen dugu Euskadiko faunaren egoera, eta partikulariki gure bailara-koa Gizarte produktibista eta kontsumitzaile hau, zatika zatika lapurtzen eta suntsitzen ari da naturak betetzen duen espazio basatia. Eta hau eza-

gututa, Administrazioa Publikora jotzen dugunean erasoak salatze-ko, ohartzen gara Administrazio bera, sistemaren tresna besterik ez dela.

Lehengo hiri txikiak handitzen joan dira porlanezko kaiola bihurtuz. Lehengo oihan, baso eta zelai basatiak, berezkoak ez diren landarez landatu ditugu, lurra alperrik galduz.

Atmosfera, errekak eta itsasoa ere, egoera honen biktimak dira. Kutsadura, euren osagarri normaltzat hartzen dugu.

Inguru hau da gizakiok (batzuen pobretxamendurako) jasan behar duguna. Eta baita, basabere eta txoriek duten bakarra ere. Baina aurrenekoan kopurua gehituz joan den bitartean, bigarrenak murrizten joan dira eraso guzti horien ondorioz.

Baina bada oraindik beste azken erasorik, eta oso garrantzitsua gainera: ehiza.

Urtero, urtero, garai hau azaltzen denean, ikusten ditugu ehiztariak mendietako errege bihurtuz,

gelditzen den fauna urria akabatu nahian.

Eta gu, ekologistok, ehizaren aurka agertzen gara eta zera esaten dugu:

— Gizakiak ez duela eskubiderik animaliak hiltzeko bere jolaserako. Eta ondo dakigu ez dagoela gure artean ehizkiaren premiadunik.

— Naturaren oreka da defenditzen dugun helburua eta gizakiak ez du naturaren jabetzat bere burua agertzeko eskubiderik.

— Ehiztariak ez dira bakarrik ormatzen txoriak hiltzeaz. Alderantziz, ematen du beharrezkoa dutela mendiak kartutxo estaltzea, txoriak tiroz josita uztea.

— Ehiztariak ez dute errespetatzen, natura ikusi, ezagutu eta gozatzeko besteok dugun eskubidea. IXiltasuna eta lasaitasuna ez dira euren gustokoen hitzak.

— Ehiza ez da kirola. Ehiztarik eta "eskopeteroen" arteko bereiztasunak gero eta txikiagoak dira.

Arrazoi hauetxengatik eta beste mordo bat dagoelako, eskatzen diegu ehiztariari eskopetak baztertze-ko eta errespetatzea dezatela guztiona eta inorena ez den natura.

Eta Erakunde Publikoei, onar dezatela lehenbailehen, ehiza behin betiko debekatuko duen legea.

(\* ) EKIko partaidea

**ATOR**



PEUGEOT TALBOT **INDAR DINAMIKO**

**P-405 DIESEL eta TURBO-DIESEL INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75



## Izen propioak



**AED Elkarfean sukaldaritza ikastaroa** antolatu zen, urriaren 3an hasita. Asteartero bi ordu ematen ditu M. Tere Altunak, eta 42 emakume hurbiltzen dira bertara.

■ **Jose Luis Elkoro, 53**, Bergarako alkatea, HBk U-29an Gipuzkoan lortu duen senatorea. Elkoro Elai enpresaren fundatzailea da eta Seytra eta Balzers-Elai enpresen kudeatzailea. "Egin" egunkariko Administrazio Kontseiluaren buru, hauxe da Bergarako Alkatetzan egiten duen bigarren agintaldia. Lehenengoan, "Bergarako Alkateak" taldean hartu zuen parte.

### Erromara bidaia.

Koadrila majoa elkartu zen, autobuskada bat, J. M<sup>a</sup> Bengoaren beatifikazioa zuzenean bizitzeko.

Erroman bertan Angelita Agirre Arrietaren heriotza suertatu zitzaizen. Denok bat egin, indarrak inoiz baino gehiago elkartu eta aurrera egin zuten.



■ **Xabier Legorburu, 21**, antzuolarra laster lanean hasiko da AEDk astialdiaren inguruan eratu nahi duen enpresarako proiektua aztertzen. Xabier asistente soziala da. Antzuolako Udalean ari da lanean egun erdiz, pobreziaaren aurkako planaren barruan.

■ **Iñaki Aldekoa, 28**, oñatiarrak Eusko Jaurlaritzaren 250.000 pta.ko beka irabazi du, B. Atxagaren Obabakoak obraren azterketa literarioa egin ahal izateko. Iñakik Euskal Filologia ikasi zuen Donostian eta Gasteizen. Donostiako Magisteritza eskolan irakasten du. Soinujole trebea da eta Oñatiko Musika eskolako zuzendaria.

■ **Iñaki Pagona, 33**, irakasle abadiñoarra Eskoriatzako Irakasle Eskolan zazpi urtez Zientziak irakatsi ondoren, Alecoopeko hezkuntza sailera doa lanera, REM eta bigarren mailan erabiltzeko material didaktikoa ikertu eta haren erabilpena hobetzeko helburuarekin. Hala ere, segituko du Irakasle Eskolara joaten informatika proiektua amaitu arte. Iñakik Fisika ikasi zuen Leioan.



Laso-Arregi

**Juan Jose Maltras eta Sara Iglesias** arrasatearrak Monterronen ezkondu ziren, zibilez, San Fermin biharamonean, larunbatez. Ezteibidaldia Kanarietara egin zuten. Mila zorion!

**TXAKUR ZAUNKAK ATEAN**  
Juan Martin Elecpuru



"Irrifarra sorterazten dizu eta liburua amaitu arte ez zaizu irrifarra desagertzen"  
(Anjel Lertxundik, *Zabalik*)

"Zaila egingo zaio irakurleari liburua bazter batera utzita ez bukatzea"  
(Josu Landak, *Argia*)

"Liburua samur, gogoz eta irribarre jarraitu batez irakurtzen da"  
(Gerardo Markuletak, *Arrasate Press*)



# Egun bat Elenaren bizitzan

## Elena Isasmendi Mondragoeko neska atzeratua

*Elena Isasmendik hogeitasei urte ditu. Deba bailarako beste mutiko eta neska atzeratu askotxo bezalaxe, Bergarako Mikel Deunaren patronatoan ibili zen eskolan hogeitabat urte bete arte. Ordutik, GUREA enpresak dituen tailerretan ari da lanean. Erreportai honen helburua Elenarekin pasatako egun baten bidez gure artean daukagun errealitatea zuenganatzea litzateke*



### Egunari nola ekin

Goizeko zortzi t' erdian heldu naiz Gipuzkoa Etorbideko 48ra. Eskailerak igo, atea jo. Sukaldean aurkitu ditut Elena eta bere ama, neskatilak oraindik ere kafesne beroa aurrean duela. Tira, urduri dagoela sumatu dut.

Gosaria amaitu eta hortzak garbitzera joan da. Bere amarekin berriketan nabilen bitartean, egunero Bergarara eramaten duen autobusa hartzeko ordua heldu zaigu.

Autobusean eseri garenean, Elenak beste mutiko eta neskek aurkeztu dizkit, banan banan: "Jesus Mari Martinez, Mondragoekoa, Mila Santa Cruz, Oñatika, Espe Iñarra..." denak ere matematikoki gogoratzen dituela erakutsiz.

Elkarrizketari ekin diogunean erabat lasaitu da, eta laster aurkitu du momentu aproposa bere kontutxoak esateko. "Neri mutilak erruz gustatzen zaizkit, altuak eta ile-

horiak". Izan ere, badu nobioa, "Bai, Danny Amatulo, Famakoa, ezagutzen duzu?".

Harro sentitzen da bere lagunek niganako duten kuriositateagatik. "Nerekin dator, eta errebistan irten-go naiz". Ikusi behar neska-mutikoen aurpegiak argazki batzuk ateratzeko prestatu naizenean. Denak

hurbiltzen dira, disimuloz. Handik gutxira, guztiek galdera berdina: "Ni ere errebistan irtengo naiz?".

### Begarako tailerrean

Bederatzi t'erdian heldu gara Bergarako tailerrera. Han aurkitu ditut Juan Carlos, Manu eta Aitor, tailerreko enkargatuak. Hogeitamalau

langile daude beraiekin. Enkargatuek laster onartzen dute mundu berezia dela jende atzeratuena, "baina oso saltseroak dira, maitekorrak. Egun batzuk urrun egonez gero, berehala sentitzen dituzu faltan".

Neska-mutikoak urduri daude. Badirudi gauza arraroa iruditzen zaiela ni bertan egotea. Lehenago edo beranduago, denak hurbiltzen zaizkit bi muxu ematera edo bostekoa luzatzera.

Elenari hori ez zaio batere gustatzen. Eguneko protagonista bakarra izan gura du eta eskutik heldu dit besteengandik urruntzeko.

Izkina batean eseri eta berriro ekin dio elkarrizketari. "Gaur 'La ley de los Angeles' ematen dute. Polita da telebista. 'El precio justo' eta 'Barrio Sesamo' ere sarritan ikusten ditut".

Benetan kurioa da neskatila honek duen oroimena, parra-parra botatzen ditu izen jarioak. "Beldurrezko pelikulak ez zaizkit batere gustatzen. Gauza alaiak bakarrik, 'Los hombres de Harrelson', 'Fred Astaire eta Txintxe Rogers'...".

Gero, poliki-poliki eguneroko lana komentatzen hasi da. Bakoitzari bere gaitasunaren neurrian ematen zaizkio betebeharrak. Batzuk jostailuzko itsasontzien piezak enpaketatzen dituzte; beste batzuk hodi an-

## "Neri mutilak erruz gustatzen zaizkit altuak eta ilehoriak"

tzekoak prestatu. "Nik sukaldeko gailuen euskarriak egiten ditut, baina gaur lan gutxi daukagu".

### Heldu da bazkalordua

Gehienak gogor ari dira lanean. Esperientzia polita da beraientzat, gauzak ondo egiteko gai direla erakusteko aukera ematen dielako.



Noizean behin beraiengana hurbiltzeko eskatzen didate. Jonek, Jose Marik, Milak...guztiek dute kontutxoren bat. "Arrasatekoa zara? Nik lehengusu bat daukat Arrasaten, Jorge"; edo Milak, "51 urte izan nahi ditut, jubilatuta, ezkondu eta egun guztia karta jokuan emateko". Han egon gara ordu bata arte.

Euskal Herriko ohitura zaharretariko bati eutsiz gehienak oso jatun onak dira. Azkar altxatu dira jantokira joateko. "Gurekin bazkalduko duzu?", eta poztu egiten dira baietz erantzuten diedanean.

Elena haserre dago. Gaur lentejak daude jateko, eta badirudi ez zaizkiola batere gustatzen. "Tripako mina ematen didate, txiki-txikitatik. Eskerrak sukaldariak porru-patatak prestatuko dituela niretzat".

Giro polita. Hain zoriontsuak dira edozein detailerekin... Hango txaloak sukaldariak oilasko errea ekarri duenean!

Ondo bazkaldu, kafea hartu eta kanpora irteten dira atsedendaldia hartzera, ostera lanari ekin aurretik. Batzuk zigarroa erretzen; neskak elkarri txutxumutxuka. Hor dabil Jon ere, mundu guztia animatzen pelotan jolasteko.

tora daude tailerrean lagunekin eta ez dute irten nahi. Azkenean, hala edo nola denak autobusera.

Bostak aldean heldu gara Arrasatera. Elenak oraindik ere berriketa bizian segitzen du. "Etxera igoko

behintzat Elenak.

Dena den, ez pentsa geldi egongo denik. "Ahizpak gantxiloa nola egiten den erakutsi zidan, eta ikaragarri gustatzen zait. Egunero aritzen naiz pixka bat". Eta ingles



Ez zaio kostatzen irriparre egitea

naiz erropak aldatzera. Eta gero kalera, Ama eta bere lagunekin...".

Betiko ohitura dute hori. Seirak aldean elkartzen dira Elena, bere ama, Joxepi, Emili...eta hor ibiltzen

klaseak, horretan ere badabilela. "Mister, eta mademoiselle...".

Harro sentitzen da, ongi egiten dituen gauzak azpimarratzerakoan. "Idatzi amari mahaia prestatzen ere laguntzen diodala". Tira, noski baietz. Eta berriz bueltatzen da bere grina nagusia den telebistara. "Bai, gauetan beti telebista ikusi, oheratzeko ordua heldu arte. Normalean pelikulak. Beste programa batzuk ere jarraitzen ditugu, baina pelikulak dira gehien gustatzen zaizkidanak".

Gantxiloa, telebista...eta gero ohera. Ohera, bihar ere egun berria jaioko delako. Auskalo ze amets izango dituen lagun gau ilunean. Direnak direla, ondo izan Elena, zure alaitasunak pena merezi du eta. Ondo izan.

## "Bakoitzari bere gaitasunaren neurrian ematen zaizkio betebeharrak"

**Arratsaldea: osteratxo, gantxiloa eta telebista**

Bazkalosteko orduak berehala pasatzen dira. Ordubi terdietatik laurak arte aritzen dira lanean; baina lasaiago, badakite segituan helduko dela etxera joateko garaia.

Batzuk astotxo jartzten dira, gus-

dira dendarik denda erakustokiei begira. "Gero kafetegiren batean eseritzen gara. Nik mostoa edaten dut".

Hori bai, mostoa hartu eta asperitzen denean, berehala etxera joateko gogo bizian agertzen da. Egia esan, tailerra eta etxea dira bere munduaren oinarriak; hala adierazten du



**URONDO elektrizitatea.**

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektroiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak



**ERAÑA**  
**AHOLKULARITZA**  
**OROTARAKO**  
**ASEGURUAU**

Kontzesiño kalea 4, behea  
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE



## AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

*Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!*

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO  
DIZUGU**

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate

## Parques y Jardines S. A.

**PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA  
LORAZANTZAKO MANTENUMENDUA ORO HAR  
LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ**

*Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)*

## Iosu

*argazki denda*

Argazkilaritzarako  
materiala.

Erreportaiak.

Bisuteria.

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60

**MARTINEZ  
aroztegia**

**Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzarriak**

Araba Etorbidea, 13  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41



# “Artzainek ez dute etorkizunik”

Antton Perez de Calleja ekonomistarekin solasean

*Perez de Calleja ekonomilaria dugu. Iharduera ugariren inguruan ari izan den gizona, LKA gaztagintzan, Montero hiltegiaren... Hizkera argikoa, luzez aritu ginen hitzegiten, nahiz eta hemen esandako guztiak agertzeko lekurik ez izan.*

— Zein egoeratan aurkitu zenuen Lankide Aurrezkiak zu bertan lanean hasi zinenean?

— Ni Lankide Aurrezkiaren 1969an sartu nintzen. Garai hartako LAKk gaurkoarekin zerikusi gutxi du. Lehen urte haietan konpromezu guztiei aurre egiteko arazo larriak izan genituen. Talde industrialak LAK baino askoz garrantzitsuagoa zen.

1970. urtetik aurrera egoera guztiz aldatu zen. LAKk gorakada handia eman zuen eta 1981ean nik berau utzi nuenean, finantz beharrei zegozkionez talde industrialak baino askoz indartsuagoa zen.

— LAKk izan duen garaipena, edozein banketxek izan dezakeenarekin pareka daiteke?

— Bai eta ez. Garai hartan, industriaren munduan kompetentzia gogorra zen eta nahiko urte zailak ziren industriari aritzeko. Banku mundura berriz, oso berandu heldu zen kompetentzia eta bankuak negozio errazak ziren. Erdilotan zeuden edota marketing erasokorra erabiltzen ez zuten banketxeen artean, langilegoari konpentsazio gutxi ematen zion merkaturuan haztea nahiko erraza suertatu zitzaigun. Horrez gain, LAKk nazioaren alde, lanpostuen sorkuntzan ziharduen bankuaren irudia eskaini zuen, garai hartan


nazionalismoz, — zentzu zabalean ulertuta — har zitekeen guztiaren irudia eskaini zuen. Alternatiba berri eta bertakoa.

— Edozein modutan ere, 1981ean LAK utzi eta artzantza munduan sartu zinen, nola liteke?

— Ni baserriak beti erakarri izan nau. 1981ean 38 urte nituen eta beste gauza batzuk egiteko unea zela pentsatu nuen. Beraz, baserria erosi eta gazta eta ardie-na horren ondorio izan ziren.

— Zein egoeratan daude baserriak?

— Ardiekin ari direnen artean, bereizketa garbia egin daiteke artzain eta ganaduzaleen artean. Artzaina oraindik mendira joaten segitzen duena da, superbizipen ekonomia du; oso gutxi ekoizten du eta ez du ezer gas-



Antton Perez de Calleja

ba dute etorkizunik.

— Zergatik sortu zenuen artzai-gazta elkarteak?

— Gazta egiteko inork ez zuen ideia zientifikorik. Gazta era desberdin, garbiagobatez, egiteko tresneria bilatzen hasi ginen, udaran gazta gordetzeko zegoen arazoa aurrikusi eta gazta gordetzeko gelak egin genituen.

Bestalde, Eusko Jaurlaritza, gaztagintzan eginiko inbertsioak %40an subentzionatzen hasi zen; horrek

zuen. Komertzializazio arazo handiak zituen gure gazta defendatzeko.

— Handik zenbait urtetara Monteron...

— Hori gaizki atera zen abentura izan zen. Montero gaizki zebilen enpresa zen, diru asko galtzen zuen eta finantz arazo larriak zituen. Enpresa martxan jartzeko bide bakarra promesa baten mende zegoen. Banco de Credito Agrikolak eman behar omen zuen kredituaren mende.

Kreditu hori ez zen inoiz lortu eta esperientziak bost hilabetetara porrot egin zuen. Kreditua lortuko ez zela ikusi zenean, enpresa diru galtze gurgil batean, autodesegetiko gurgilean erori zen. Esperientzia tristea izan da, guk etorkizuna izan zezakeen enpresa zela uste bait genuen. Nolabait politikarekin lotuta dago eta erabakiak beste leku batzuetan hartu izan dira. Enpresari eusteko, bi edo hiru urtetan enpresa errentagarri bihurtzeko adina baliabide inoiz ez genuen izan eta dena hor amaitu zen.

## LAKk 70. hamarkadan nazionalismoz uler zitekeen guztiaren irudia eskaini zuen

tatzen. Nire ustez horrek ez du etorkizunik.

Hauen parean ganaduzaleztat har ditzakegunak dauzkagu. Gizon hau oinarri arrazionalen gain hasi da antolatzen bere ustiapena. Gastatzeko prest dago, artzainak baino askoz gehiago lortzeko. Hauek nire ustez,

60-70en bat gaztandegi eraberritzea ahalbidetu zuen.

Eraberritze horien ondorioz, gaztaren kalitatea hobetu da, gazta gehiago egiten dugu eta hobeto gordetzen da. Guzti horrek, Euskal Herrian dauden industria txiki-ekin batera “jatorrizko izena” sortzeko balio izan





Ohorezko mailako jubenilak saltua emateko prest

## Mondra harrobia zaintzen

Asmo hori betetzeko zuzendaritza berezia sortu da

Hirugarren mailako taldeaz aparte zazpi ekipo federatu eta eskolar-teko 22 talde biltzen ditu Mondrak. Guztira 160 bat neska-mutiko federatuen artean, honako banaketaz:

**Gazteak:** Ohorezko mailan dabilen taldeak, 1.165.000 ptako aurrekontua eta Arrasate Kirolak-en diru-laguntza. Alberto Perez ari da entrenatzaile lanetan. Bigarren mailan, 980.000 ptako aurrekontua, Brues Eraikuntzaren laguntzaz. Entrenatzailea Chinarro. Bi talde hauek hiru entrenamendu izaten dituzte astean, mailaz igotzeko helburua betetzeko.

**Haurrak:** Bi talde, bata lehen mailan (Renault-Mecaren laguntzaz. Apraiz entrenatzenatzaile) eta bestea Bigarren mailan (Parques y Jardines eta Hirurok Eraikuntzak-en

diru-laguntza, S. Lz Pascualen ardurapean). Infantiletako bi talde haue-tariko bakoitzak 500.000 ptako aurrekontua du.

**Kimuak:** A eta B taldeetan banatuta, biak ere 290.000 ptako aurrekontuaz. A taldeak Codima Eraikuntz-en diru-laguntza jasotzen du eta J. I. Garai da entrenatzaile. B taldearentzat Cesparen laguntza, R. Lopezen ardurapean.

**Nesken Taldea:** Okendo Kirolak-ek emandako laguntza. 800.000 ptako aurrekontua dute. Varques ibiltzen da taldea zuzentzen, eta Rosa Otadui da delegatua. Hemen ere, guztira hogeitabi bat neska.

Bukatzeko, aipatu behar Ford Mugarrik laguntza ederra eskaintzen diela talde guzti hauei.


### Arrasate Kirolak-ek 34; Hernanik 0

Ondo baino hobeto aritu ziren igande goizez Arrasate Kirolak taldeko Rugby jokalariaik. Hernanikoak etorri ziren Iturripera, eta hasiera-hasieratik garbi erakutsi zieten arrasatearrek garaipena etxean uzteko gogotan zeudela. 18-0 lehen zatian, eta neurketa amaierarako 34-0eko markagailua.

Zorionak Pello Hiriarten mutilei, eta ea hemendik aurrera horrelako emaitzak nonahi lortzen dituzten.

### Marino ez datorrela...

Oraindik zalantzan dagoen kontua bada ere, badirudi gure Marinok uko egingo diola Fagor taldearen eskaintzari. ONCEkoek Berrizeko txirindulariaren aldeko apostu gogorra egin dute, mahai gainean ehun kilo inguru jarri omen dizkiotelarik. Marinok gogoa bai Arrasatera bere taldeki-de batzuekin etortzeko, baina hain da erakargarria itsuen elkarteko "kuponazoa"...



ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



ARDILLA  
artileak

Puntozko jantziak eskuz eta makinaz  
egiten dira

Kalealdea 13, B. Tfnoa: 79 65 93



podiuma

**Juan Garai,  
rugbya filosofiatzat**

Auskalo zergatik, rugbyak gauza bereziak ditu. Ez da ohizko kirola. Tipo handikote horiek ikusten dituzunean elkarrekin borrokan, soilik egiten dutena gustatzen zaialako, inolako interesik bilatu gabe...


Juanek bi urte daramatza mundu horretan, honekin hirugarrana. "Eskubaloian ibili nintzen. Arazo batzuk izan eta utzi egin nuen. Orduan bururatu zitzaidan hau probatzea eta hemen gelditu ere"

Aurrelari lanetan aritzen da, aurkakoekin aurrez-aurrez. "Postua normalean gorputzaren funtsean dago. Aurrekalderako jende indartsua behar izaten da bultzatzeko, baloiak batzeko, metroak irabazteko. Hor saiatzen gara Manolo, Benantzio, Mikel, Josu, Pepe, Ni, Sebas, Imanol..."

Garai baten rugbya puntako kirola izan genuen lehenengo mailako taldeaz. "Oso ekipo ona osatu zuten, eta koadrila berekoak ziren denak. Urte batzuetan guztia pikutara. Gero badakizu, hutsetik hasi eta guztia berriro martxan jartzea ez da erraza, baina giro hori berreskuratu nahian gabilta".

Rugbya filosofia bat dela, baietz. Hona ez da inor diru esku hurbiltzen. "Gu amateurrak gara. Izerdia atera, ondo pasatu, irabaztea besterik ez dugu bilatzen. Eta kuriosua, partiduan aurkakoekin kolpeka eta ostiaka ibili ondoren gero denok elkarrekin edatera joaten gara".

Zerbezak beti etxeko taldeak



Juan Garai

ordaintzen ditu. Detaile majoak, jatorrak dira horiek.

Baina agian zaletuen falta nabari da Arrasaten. Iturripera ez da jende gehiegi azaltzen larunbat arratsaldetan. "Badaude batzuk beti etortzen direnak; jokalaria izandakoak, sendikoak, lagunak..."

Motibazioa ere aurkitu beharko dute nonbait rugbyari hainbeste ordu emateko. "Motibazioa gure artean dagoen elkartasuna da, azken finean talde bat osatzen dugulako eta guztion artean taldea aurrera atera beharra daukagulako. Irrikaz egoten gara partiduak jokatzeko, nahiz eta askotan bertara joan eta sufritu".

Hiriartek ekipoa hartu zuenetik, aldaketa batzuk ere nabari da. "Pellok bi gauza ekarri ditu. Alde batetik teknika, baloia mugitzen erakusten digu beti borrokara sartu beharrean. Bestetik diziplina, argi edukitzea noiz zer egin behar dugun".

Juan aurrelaria da, eta seguraski datorren asteburuan ere hor-nonbait ibiliko da, aurkakoren batekin aurrez-aurrez.

Rugbyaren filosofia.

**Mondrak etxean ezin**

Aurtengoan nahiko makal ari dira gure jokalaria Atxabalpeko partiduetan. Mungiako emaitza bikainaren ondoren, zaletuek esperantza handiz itxaroten zuten Arenas taldearen aurkako neurketa. Joku kaxkarra, eta azkenean husnako berdinketa markagailuan. Saiatu ere saiatzen dira, baina orainarte etxean jolastutako bost neurketetatik ez dute bat bera ere irabazi. Horrela segituz, kanpoko partiduetara joateari ekin beharko diogu gure taldearen garaipenak ikusteko. Adibidez, datorren igandean, denok Gernikara.

**Saskibaloian, lautik lau**

Lau partidu jokatu dituzte Arrasate Kirolak saskibalo taldekoek aurtengo denboraldian, eta lauretan porrot egin dute. Dena den, badirudi gutxika-gutxika maila berriari neurria hartu diotela. Azken partiduetan behintzat, infartuzko bukaerak bizi izan dituzte. Amaierako segunduetara markagailu berdinduaz heldu, baina beti ere aurkako saskiratzea medio, arrasatearrak esku hutsik. Hala gertatu zen pasatako asteburuan, Donostian Juven taldearen aurka 72-70 galdu zutelarik. Larunbat honetan, Barañainekoak izango ditugu bisitari kiroldegian. Egurra horiei, egurra!

**Denborapasen soluzioak**

**Ikusi makusi**  
Errepikatzen ez den irudia:

**OKENDO  
KIROLAK**

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda!

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE



## Iritsi da bertsolari txapelketa nagusia

Hiru urteko tarte utzi ondoren, 89ko Txapelketak azaroaren lehen izan du lehenengo jaialdia, eta ia Santamasak arte pil-pilean egongo den gaia denez, guk ere xehetasun garrantzitsu batzuen berri eman nahi dugu. Haseran espero ziren berrogei bertsolarietatik, Amuriza izango da parte hartuko ez duen bakarra, ahots arazoak direla eta. Beste 39 lagunak, berriz, honela banatuko dira hiru faseetan zehar: Azken-laurdenetan 32 bertsolari, Finalerdietan 16 eta Finalera 8 iritsiko dira, 1986ko Txapelduna eta bigarrena, Sebastian Lizaso eta Lopategi, eta Finalerdietako sei lehenak.

Lehen kanporaketak hasi dira, esan bezala, azken laurdenetako saioak Hendaian hilaren 5ean, Laudion 12an eta azaroaren 19an Lesakan izango direlarik, goizeko 11,30etan eta arratsaldeko 5etan. Finalerdietara pasatzen diren bertso-



larietarako aukera azaroaren 26an Azpeitian eta abenduaren 3an Gernikan izango dugu, eta kontuan izan hor sartuko direla aurreko txapelketako finalistak ere. Azken saioa Donostiako Belodromoan izango da, abenduaren 17an, goizeko eta arratsaldeko.

Txapelketa jarraitu nahi duenarentzat, saio horietara joateaz gain

irratia, telebista, igande eguerdian "Hitzetik Hortzera" programan eta Arrasate Press-ek ere emango dute modua, eta gure bailadan, Jon Sarasuak parte hartuko duela eta, saltsa eta emozio berezia sortuko dela espero da. Bertso eder asko entzuteko aukera behintzat seguru! Bertsozale: hasi kiniela egiten!

Arantzazu Loidi

a.eme.interiores

GARIBAI 9  
20 500 ARRASATE  
(GIPUZKOA)  
Tlfnoa: 943-791503  
Telefax: 791489

barrukaldeko arkitektura  
etxeko ekipamendu osoa  
merkatal lokalen instalazioa

ARKITEKTO TEKNIKOA ETA APAINZAILA TITULATUAK DAUZKAGU



# Zaharrak berri, gazteen gustagarri

Musikarena batez ere gusto-kontua da. Batek esango du gaur egiten den musika atzokoa baino hobea dela, eta bihar egingo dena oraindik hobea. Eta besteak botako du aspaldian ez dela musika onik egiten, halako une edo taldez geroztik ez dela ezer itxurazkorik sortu. Esan bezala, gusto-kontua.

Lehengoa eta oraingoaren arteko dema honetan, badirudi ziklo modukoak ere izaten direla, eta lehengoak ostera gaurkotasuna lor dezakeela, berrizaleen amorrurako. "Zaharrak berri, gazteen amorrugarri". Oraingoan ere gauzak horrela ari direla gertatzen esan daiteke, baina ez gazteen amorrurako. Ikus dezagun.

Hainbat urtetan norabidea galduta ibili ondoren, David Bowie mito distiratsua *Tin Machine* taldearen partaide soil bihurtu da, aspaldian egin duen musika gogorrena egi-



teko. Paul McCartneyk ere aurtengo udan argitaratu duen "*Flowers in the dark*" disko berrian mamitu du Beatles taldea banatu ondorengo lanik ederrena. Bob Dylan bera sasoirik onenean bezain indartsu ageri da kaleratu berri duen "*Oh, mercy*" diskoan. Eta azkenik, duela 25 urte lehen diskoa kaleratu zuen Rolling Stones taldea, 80. hamarkadan desagertzeko zorian egon ondoren, sekulako erantzuna ari omen da jasotzen Estatu Batuetan hasi berri duen ji-

ran, "*Steel wheels*" disko berrian oso lan interesgarria burutu ondoren.

Guztiak dira 50 urte inguruko agure martxosoak, aro mitikoak igaro eta makalaldian jausi ondoren, bapatean suspertu direnak. Nonbait irakurri ere irakurri dut ea aurtengoa ez ote dugun izendatu beharko hirugarren adineko rockeroen urtea!

Zikloak buelta osoa ematen duenean, zaharrak berri. Eta oraingoan bezala bueltan datorrena ona denean, gazteen gustagarri.

Mikel Irizar

amuebladora



mondragonesa

Zabalik gaude!!  
Erakusketa berria  
Santamainan

Diru asko ala gutxi,  
ez ondotik pasa,  
ez begiak itxi.  
Sartu, ikusi...  
eta komeni bazaizu erosi

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Fax: 791489 ARRASATE




## Irakurketa eta idazketa eskolaurrea eta hasiera zikloan Erakusketa baten berri eta gai honen inguruko gogoeta batzuk

Azaroaren 8tik 10era Eskoriatza-ko Irakasle Eskolan gai honen inguruan erakusketa bat antolatuko da; arratsaldez 3etatik 7etara egongo da irekita. Bertan azkenengo 3 urteetan Irakasle Eskolako erreziklaiaren esparruan ikastetxe ezberdinateko irakasleek sortutako materialak eta haurrekin egindako esperientziak izango dira erakusgai.

Arlo honen ikaskuntza-prozesuaz gehiago jakin nahi dutenek (irakasleek, gurasoek, ikasleek) jarraian aipatzen diren gaien inguruan informazio ugari aurkituko dute:

- Irakurtzeko metodoen bilakaera
- Irakurketa eta idazketaren irakaskuntzaren perspektiba berriak.
- Irakurketa eta idazketa lantzeko baliabideak.

Erreziklaian egindako lanaren oinarrian printzipio batzuk agertzen dira, jarraian aipatzen ditugunak,




hain zuzen:

- Ikasleak dituen eskema-kognitiboetatik abiatuz eskema hauetan ezagupen berriak kokatzea.
- Benetako irakurketaren motiboa, esanahiaren bilaketa da.
- Irakurtzeko trebetasuna, irakur-

leak ezagutzen duenaren eta irakurtzen duenaren arteko erlazioen aktibazioan dago oinarrituta.

- Irakurtzearen garrantzia irakurketaren garapenean: irakurriz ikasten dugu irakurtzen.

*Klarion taldea*



# GIPUZKOA

# HERRI Irratia



# Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

**Lagun Aro Aseguruetan** gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

**Lagun Aron** poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

**Lagun Aro** Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkarteke partaide bezala.

**LAGUN ARO**  
SEGUROS ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkie Taldekoa




# Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK  
Iturriotz, 15  
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN  
HORNIDURA OSOA  
OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

## MUSAKOLA OSTATUA

Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Ezta Jatorduak  
Banketeak  
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g  
Tfnoa: 79 20 50

# MIANGO

*lotsagabe jazteko*

Postas 5, Tfnoa: 23 04 48 GASTEIZ

# PUB HAIZEA



"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoan

79 04 28 Tfnoa.

## UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako  
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

## ARRASATE PRESS

*Bidal ieazkiguzu  
zure kolaborazioak*

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Arrasate pasealekua 3 bis, Behea ARRASATE- Tfnoa:79 71 64



# Txakur baten bila

Utz ditzagun oraingoz Itziar eta Endika beren argaltzeko planarekin eta bitartean ardura gaitzen orain-tsuko beste gertakizun batzuez. Duela gutxi neska txiki bati txakur-rrak horzka egin dio eta zenbait arrasatear gertakizun honekin kezkatu egin da. Egia esan, gure inguruan, ez eta penintsulako beste herrietan ere, "errabia"-kasurik ez da agertu aspaldian, baina etxeko animalia batek (katuak, txakurrak) eta berdin animalia basatiaren batek (azeriak, mofetak, gautxoriak) norbaiti hagin-ka egin badio erme egotea derrigorrezkoa da. Animalia hori ezaguna izanez gero, ondo miatu eta ardura-pean egon beharko du hamar egu-netan, hagin-ka egin ondoren "errabiaren" birusa txuaren bidez kutsatu eta pertsonaren gorputzera pasa denean 2-8 aste geroago gerta dai-tekeelako eraginkorra; batzuetan epe hau luzeagoa ere izaten da baina

normalean 8 aste horiekin nahikoa da.

Kutsadura horrek mugatzaile batzuk ere baditu: alde batetik, zauriaren neurria, zauria non dagoen kokatua, burmuinetatik hurbil ala urrun dagoen; bestetik birus horien zenbatekoa eta arropak gorputzari eman dion babesa.

Horregatik animalia bizirik mantentzea zeharo garrantzitsua da.

Errabiaren aztarnarik agertzen ez bada, askoz hobeto, ez bait da orduan arriskurik egongo.

Arazoa animalia hori ezezaguna dugunean gertatzen da. Zoritzarrez jende asko da txakurrak eta katuak etxean dituztenak baina haietaz ezer gutxi arduratzen direnak; higie-ne aldetik, ez dituzte txertatzera er-maten eta bost axola ezer gertatzen ez den bitartean. Normalki etxeko animaliatxoak baketsuak izaten dira baina noizean behin, batez ere bel-

durra erakusten zaienean edo be-raiengandik iheska hasiz gero, eraso egin dezakete eta hagin-ka edo hatza-parka egiten dute. Ez ezazue ani-malia ezezagunekin jolasik egin eta hagin-ka eginez gero, aholku hauek jarraitzea gomendatzen dizuegu:

— Berehala zauria ur korrontean (txorroan) garbitu behar da.

— Sendagilearengana joan gar-biketara sakonagoa egiteko eta garai berean "tetanos" edo beste edozein infekzioren aurkako tratamendua jarriko du.

— Sanital erakundeari jakin arazi gertatutakoa eta han erabakiko dute "errabiaren" aurkako txertorik ipini behar den ala ez.

— Bizirik gorde animalia hori ikerketa egokiak erraztasunez egin ahal izateko.

— Ez hil animalia, bestela bere burmuinak aztertu beharko dira eta askoz neketsuagoa da.

*Eukeni eta Arantxa*

sonora  
**KEF** **Harman/Kardon** **PANASONIK** **CEC** **MUSIMA**  
**QUAD** **ONKYO** **Vegas**  
 baile **Clener**  
**Mission** **Goodmans** **CASIO** **EGI**  
**HONNER** **BASF** **NAKAMICHI**  
**Zimmerman** **Polytone** **Televes** **Ortela**  
**Fujitsu** **LARK** **Rotel**  
**Cyrus** **Fox**  
**TEAC** **JBL** **MORESCHI**  
**TORQUE** **PIONEER** **PHILIPS**  
**Hantarex** **Alpine** **KELLER** **Ortofon** **JUGGS**  
**Admira**  
**Tensai** **MELOS** **Estrella** **KONIKA** **UHER**  
**Fonestar** **SHINTON**  
 Otalora kalea Tfnoa 79 29 09 ARRASATE



**ZENTRO**  
**PSIKOPEDAGOGIKOA**  
 Zerbitzuak:  
 \* Diagnostikoa - Orientazioa  
 \* Estimulazio golzilarra  
 \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitate eta hizkuntza berrezleria)  
 \* Logopedia  
 \* Laguntza-terapia  
 \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe-bustitzea), eukopresia  
 Ignazio Zuloaga kalea 10  
 ARRASATE TFNOA: 79 48 77

estetika-zentroa, opariak, jostailuak

# Z a r r a o a

apaindegia

**Lua**  
 gozokiak  
 Erdiko kale 8,  
 Tfnoa: 79 66 75 ARRASATE



## Besaideren eskutik Pirineoetara

Lau eguneko jaia zegoela aprobetxatuz, Besaide Mendi elkarteak bidaia antolatatu zuen *Estos* haranera. Ostegunean goizeko bostetan, atzerapen apur batekin batzuei ohea gustatzen zaielako, Aragoiko erreinura abiatu ginen. Autobusean zortzi ordu eginda gero, hankak eta ipurdiak gogortuta, Benasquera heldu ginen. Bazkaldu orduko motxilak bizkarrera botata, marrazkiloak moduan etxea gainean eta pauso motelaz, bi ordu t'erdiko martxari ekin genion aterperaino. Bariku goizean ondo gozaldue ostean, *Poset* gailurrerantz jo genuen. Bost orduko ibilaldiaren ostean, 3.300 metro inguruko tontorrera heldu ginen nahiz eta azken paretetako izotzak estutasun batzuk pasa erazi. Hurrengo egunean beranduago jaiki ginen Perdiguero gailurra samurragoa zelakoan; hala ere, lau ordu



t'erdiko martxa neketsu baten beharra izan genuen 3.200 metroko tontor izoztu eta aizetsu hura gainditzeko. Ohizko argazkia eta hamarretakoa egin ondoren, ekin genion jaisteari gaueko jai giroa ahalik eta atseginen montatzeko asmoz. Hortik aurrerakoak norberak imagina ditzala.

Bueltan, autobusean kontu kontrari gentozela, Besaideko antolatzaile baten ahotik jakin genuen, abenduan ere norabaiteko asmoa dagoela, Gabarnie-ra ziuraski. Ea animatzen zaretan eta 50 pertsona izan beharrean 100era heltzen garen. Argi ibili karteekin.

Hankamotz

ESTETIKA ETA LURRUN ZENTRUA

**Miren Arrieta**

"AMERICAN WORLD"

Sistema iraultzaileena jarri duela martxan adierazten dizue.

Nutrizio, gizeneria eta arteroesklerosian aditua den Lopez Aristegi Doktarearen laguntza ere badu zentru honek

Konputagailu bidezko dieta programarekin

**LEHEN SAIOA DOAN**

Konpromezurik gabe

Zerkaosteta 12, Arrasate Tfnoa: 79 00 35.

**A r r a s a t e**  
**u** ● **Klase**  
**t** **praktiko**  
**o** **eta**  
**e** **teorikoak**  
**s**  
**k**  
**o**  
**l**  
**a** **Olarte, 30**  
**79 89 89**



**GATZAGA**


Jatetxea

**Arrasateko**  
**jatetxea**

Olarte kantola 3,  
 Tfnoa: 79 84 53

**ARRASATE**  
**PRESS**  
 astero zuekin





Gas, gasolio eta elektrizitatezko berogailu eta aire girotuko instalazio elektrikoaren disenua, muntaia eta mantenua

Industrialdea, B-5, ARETXABALETA Tfnoa: 79 03 03 ARRASATE Tfnoa: 79 05 18

## TABIRA DIETETIKA

Kosmetika eta produktu naturalak Estetisiena

Munar 8, ARRASATE

## Gorka

ILEAPAINDEGI MIXTOA



Bainetxe kalea 10, behe. Tfnoak: 79 96 80 eta 79 63 27  
ARETXABALETA

ALTUNA  
FRUITATEGIA  
Kalealdea 11n  
eta Merkatuan

Tfnoa: 79 90 75 ARRASATE



## NUTRISAN

Nutrizio-osasun eta kirol medikuntzako zentrua  
Telleria Dra., Serrano Dra., Elbusto Dra.

Gizeneria, zelulitisa, kolesterola, azido urikoa, diabetea, hipertentsioa...

Kirolaren egoera fisikoaren balorazioa.

Lehiaketa-aurre eta osteko eta entrenamendu eta entrenamenduko garaiko dietak

KONPUTAGAILUZ PERTSONALIZATURIKO DIETA  
ANALISI KLINIKOAK  
ELEKTRO-ESKULTURA  
TONIFIKAZIORAKO FUNTZIO ANITZEKO OHEA

Kontsultak: 10etatik 1etara

4etatik 7etara (Aurrez txanda eskatuta)

Kale Aldea 11 behe, 79 65 78 ARRASATE

## berango

Arotzeria orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atekak

Legarreko pabiloi industrialak  
(Behea) Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

## BOLINTXO


kirolak

Ibargarai 10, BERGARA

BIZKAI JATETXEA

## Bizkai jatetxea

Udala auzoa Tfnoa: 79 22 15 ARRASATE



Kontzesifio 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

ARETXABALETA

## BRANKA

jatetxea  
Eguneko menua  
eta karta

Zarugalde 1, Tfnoa: 79 60 10



# Jesus Elgoro etxeko tresnak

Elektroteknika

T. B.


Bideo

Bideo kluba

Magdalena 27, eta Garibai 10,

PHILIPS  
BLAUKPUNT  
SONY eta SANYO

ARRASATE Tfnoa: 79 18 86



*Salterain*

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...



KÖMMERLING

P. C. V.zko LEIHOGINTZA

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.

Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58

20.500 ARRASATE



**ETXEBIZITZAK**

- Bilbon (Deusto). Pisu merkea konpartitzeko bi neska behar ditugu. Tfnoa: 79.83.63. Marian.
- Pisua salgai Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 78 26 97.
- Neskez osatutako pisu bila ari naiz Arrasaten . Tfnoa: 79 20 11. Luz. 296 . 9etatik letara edo 2etatik 5etara.
- Pisua osatzeko lagun bila gabilza (gelan bakarrik egongo litzateke). Interesatuak deitu 79 48 11 telefono zenbakira (lan-orduetan) Antoni Kruz edo Karlos Nikolasi.
- Neskez osatutako pisu bila ari gara Arrasaten. Tfnoa: 79 52 22, luz.165.. Mertxe. (Deitzekotan, 9etatik 12'30etara edo arratsaldeko 2etatik 5etara bitartean)
- Pisua salgai Aretxabaletan, Portasolen. Tfnoak: 79 81 23 edo 79 63 84
- Pisua errentan hartuko genuke Arrasate edo Aretxabaletan. Tfnoa: 79 75 42. Goizeko 9etatik 1a bitartean deitu, astelehentik larunbatera
- Pisua salgai Munar inguruan. 3 logela, egongela, jangela, sukalde, 2 bainugela, berokuntza zentrala, ganbara eta garajea (azken hau aukeran). Goizeko 7etatik arratsaldeko 8ak bitartean 79 39 39 edo 79 13 77 telefono zenbakietara deitu, asteburuan izan ezik.
- Donostian konpartitzeko etxebizitza behar dugu. Dei egin 79 67 76 edo 79 59 11 tfnoetara
- Telefonikako langileak etxebizitza errentan hartuko. (3-4 pertsona). Bergaran edo inguruetan. Tfnoak: 52 19 94 (Jose Mari), 39 84 11 (Javi), 46 78 38 (Jose Luis).
- Lokala alokatzen da Uribe auzoan 36m<sup>2</sup> Interesatuak dei dezakete 79 84 37 edo 79 58 99 Tfnoa.

- Umerik gabeko senar-emazteak irakasle gazteak, etxebizitza behar du lehenbailehen Bergarako hirigunean. Dei egin 62 02 28 Tfnoa.
- Etxebizitza salgai Zabalotegi dorrean, Bergaran. Informazio gehiagorako deitu 76 17 37 edo 76 25 89 Tfnoa.
- Arrasateko erdialdean alokairuan behar dut lehenengo pisu bat edo beste bat igogailuaz. Tfnoa: 78 07 46.
- Haurrik gabeko bikote gazteak Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.

**LANA**

- Euskaraz dakien emakumea etxeko lanak egin edo haurrak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 07 73
- Neska arduratsua haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Esperientziaduna, informeak ditut. Tfnoa: 79 93 17.
- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Inglesezko klaseak emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatuak deitu 780785 10etatik ordu letara, astegunetan.
- Neska haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- Euskaraz dakien pertsona haurra zaindu eta etxeko lanen bat egiteko behar dugu. Tfnoa: 709 72 75.
- Euskaraz dakien neska behar da 4 eta 6 urteko umeez arduratzeko eta etxeko lanak egiten laguntzeko.
- Ingeleszezko irakaslea behar da "3<sup>a</sup> Bilbao" kurtsoa neska bati emateko. Tfnoa: 79 57 53 (21etatik aurrera)

**SALEROSKETAK**

- Hollister bildumako eta Jaguar bildumako liburuak salgai, erdi prezioan. Ia berriak. Deitu 79.80.91 zenbakira. Otorduetan.
- Motorra salgai, Morini 250 cc matrikula SS-W. Tfnoa: 11 77 45. (9etatik aurrera)
- Bizikleta salgai. egoera onean. Zeus 2001. 40.000 ptan. Tfnoa: 78 00 35. Javier.
- Kanadlar kanpin denda salgai (2-3 lagunendako). Merke. Tfnoa: 79 68 45
- 60 W-ko Roland kitarra amplifikadorea salgai (egoera onean). Tfnoa: 79 95 83. Iosu.
- Liburu bilduma salgai. 1952tik 1987ra bitarteko Planeta sariak eta 1969tik 1987ra bitarteko Ateneo sariak. Tfnoa: 79 15 96.
- "Cremallosa" eta puntuzko jantziak plantatzeko den tresna berezia salgai. Egoera onean eta merke. Tfnoak: 12 16 26 eta 12 15 84.
- Zurezko sehaska bernizatua salgai berri-berria. Interesatuak 79 47 14 tfnoa. deitu.
- Kotxearentzako garajea alokatu edo erosi nahi da San Andresen. Tfnoa: 79 50 53
- Paseoko bizikleta on eta merketxoa erosiko nuke. Tfnoa: 79 55 26. Ane

**DENETARIK**

- Etxeko gauzak (altzariak, telebistak,...) bota behar badituzu, mesedez, bota aurretik deitu guri, tfno honetara 79 84 76 9etatik aurrera.
- Neskak erloju bat aurkitu du urriaren 13an Portaloian. Jabeak deitu. Tfnoa: 79 23 50
- Larunbatero, Oñatiko Udal Euskalteglan EGA ikastaro trinkoa, 4 ordu.

†  
**ARRASATEN HILDAKOAK**

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:.....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....  
 .....

Arrasate Paseoakua 3 bia, etxebeha.  
 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64



## Famauen ahotik

**ESPERANZA ZEZIAGA: "Orduen dendan mixerixie irabazten zan, ez auen diruik eta"**



Ezkonketako juzgaure juen nitzenien, han ez auela Esperantzaik

### ...Mas conocida por Esperanza

Jaixo nitzenien, aitte juen zan juzgaure papelak eitten eta han, Ene, izena ahaztu jat!

Ama birjina batena izan biedau. Asunzion-ero ezta izengo?.

Bai, uste dot Asunzion dala.

Etixerakuen amai, zelan ipini dutzau umiei izena? Esperantza.

Ene ba! Nik Asunzion esan dot.

Kalien Juezorrek in trill eifi auen, puru bat emun eta esan eutzen:

Meserez, izena aldatizu "Esperantza" da eta. Halan geratu zan.

Ezkonketako juzgaure juen nitzenien han ez auela Esperantzaik, han Asunzion zeziaga auela.

Gurasuek testamentue eitterakuen aldatu auien eta oin danien ipinitte dauket; "Asunción Ceziaga más conocida por Esperanza".

### "Zeziaga" Dendie

Gu Arrasateko panaderixan bizi gitzen. Aittek "Otanero" eitten auen lana han. Gero 40 urtekin hona etorri gitzen eta Sto Tomas egunien zabaldu zan dendie, oin dala 81 urte.

Telak, zapatak... danetik saltzen gauen, ointxe letxe. Einddeko gauzaik etzan saltzen orduen, maunezko frakak bakarrik.

### AURREZKUE DANTZAN

*Karnabaletan plazan eitten zan aurrezkue plazie gaiñezka egoten zan. Hemen Maalako jaixetan be mutillek etorten zien neska-bille etxera. Ondra haundixe zan han urtetie. Bik aurrezkue eta bestiek artalataiku eifi eta dantzan. Penagarrixe da ohitura horreik galtzie.*

### Hamar urtekin lanera

Sumar, restar, mutiplikar eta horreik problemok eitten banekixen: "¿Si un obrero gana 2pts, al día cuanto ganará en 8 días?"

10 anai-arreba bagitzen eta lanien hasi bier.

Lana eitten gauen baiñe miserixie zan ataraten zana, diruik ez auen eta. Pentsau! Gizon baten jomala 2 pta, zan eta fraka azulek 6 pta., ba 3 egun bier frakak eitteko.

### Multie pagau biher

Domeketan dendak ixteko ordenie emun auienien danok zabalketan gauen, merkau egune izeten zan eta. Multie pagau biher gero.

Gerra denporan be "Fiscalia"kin problemak gittuen. Prendiek igual 8,70 markau eta guk 12 pagaute, eta ba, saltzeko preziue aldatu biher. Behin toallak remarkaute harrapau euzkuen eta 3.000 ptako multie eta 3 hillebetien ixteko ordenie jaso gauen. Hiru hillebete horreitten, itxi eifi zan fabrika baten saldu gauen eta iñoiz baiño gehixau atara gaiñera.

*Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai*

## Zelebrequerixak

— Gure mutikua Sanson baiño inddartsuaua datorrela esango neukek. Bost urte besterik etxauzkek eta hamabost kilo errez jasotzen jittuk.

— Ba ez pentsau guria be makala datorrenik. Hiru hillabete besterik etxauzkek eta gabian bururatzen jakon bakoitzian etxeko danok altzatzan gaittuk eta batzutan auzokuak pe bai.

■ ■ ■ ■ ■

Behin sartu zan Eibarko ferreterixia fabrikan hasi barrixa zan gazte bat eta hogei kilometroko barautza (broka) eskatu zeban hogei milimetrokua eskatu biharrian.

— Zer, hire ugazabak Eibartik Durangora tunela ein biha jok, ala?

■ ■ ■ ■ ■

Badoiaz trenian errespetu haundiko gizon bat eta mutiko bat, hau mokuak darixola. Gizonak hau ikusitta esaten dotsa hasarre antzian:

— Hi, mutikua, eztaukak paiflorik ala?

— Bai, baiña eztotsat iñoi prestatzen.

■ ■ ■ ■ ■

Eibarko mediku bat joan ei zan inguruko baserri batera. Errezetia eitterakkuan konturatu ei zan lapitzik ez zeukala. Baserrixan be etzeukek eta klarion bat eruan jotsen. Medikiak hartu eta gaixuan kuartoko atian eskribidu zeban errezetioi. Handik laster baserriko seme nausixena jatsi zan botikara atia bizkarrian hartuta.

"Zirikadak"etik moldatuta.

*Juan Martin Elexpuru*

**Zubiareneta**

OSO GAUZA  
BEREZIAK

Zerkaosteta 8

**L**ARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN


Caribai 3, 79 22 96 ARRASATE



**HAURTOKO A**  
ARANBURU

Arrasate pasealekua 4,  
79 14 90 ARRASATE





**Z**ezenek Euskal Herrian erro sakonak omen dituzte. Ifiaki Azkunek aurten hori frogatu nahian, *Zezenak Euskal Herrian* liburua kaleratu zuen. Aipatu liburuan, Arrasaten ere, zezenen inguruko festa ugari egin dela adierazten da. Daturik zaharrena 1527. urtekoa

dugu. Urte hartan, Felipe II erregea izango zena jaio zela eta, Arrasaten zezen festak izan ziren. Argazkian dakusagun zezen plaza, 1886ko ekainaren 25ean, San Juan biharamonean, ireki zen. Edozelan ere, ez zuen luzez iraun, 24 urte beranduago, 1910ean hain zuzen, Villa Amparo etxea eraikitzeko bota egin bait zuten.

**DIETETIKA NUTRIZORAKO ZENTRU MEDIKOA**

TRATAMENDU DIETETIKOA HONAKO HAUETAN:

- |                |  |
|----------------|--|
| -OBESITATETA   | -HAURDUNALDIA                              |
| -ARGALTASUNA   | -HAURRAK                                   |
| -DIABETEA      | -AGURE-ATSOAK                              |
| -HIPERTENTSIOA | -KIROLARIAK                                |
| -KOLESTEROLA   | -OPERATUAK                                 |
| -AZIDO URIKOA  | -LIZERI ETA GILTZURRIN GAISOTASUNAK, etab. |

KONSULTARAKO ORDUA AURREZ ESKATU  
ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 10ETATIK 12ETARA ETA 16ETATIK 19ETARA DEITU.

BERECIARTU Doktorea ETXABE Doktorea

Dietetika eta nutrizioan espezialitatea, Bordeleko Unibertsitatea (Frantzia)

Medikuntza eta kirurgia orokorrean lizenziatuak.

KONSULTA: Espalola, 4-4.b. BERGARA Tínoa. 765170

**ARRASATE  
PRESS**

79 71 64



# Kultur programazioa

## ESTONIAKO TALLIN ABESBATZA

*(Sobiet Batasuna)*

Azaroak 4, larunbata  
Arratsaldeko 7etan  
Amaia antzokian  
Sarrera 300pta.

## HELDUENTZAKO TXOTXONGILOA

**JORDI BELTRAN**  
"ANTOLOGIA"

Azaroak 10, ostirala  
Gaueko 10,30etan  
Amaia antzokian  
Sarrera 300 pta.

Arrasateko Udala    Gipuzkoako Foru Aldundia

*Sport*  
**SASIAIN**



Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63 ARETXABALETA

## Olaoste kirolak

Bizkaia etorbidea 10,  
Tfnoa: 79 65 34 ARRASATE

## ORTZI erretegia

Angiozar Auzoa  
Tfnoa: 76 22 68  
BERGARA

# TOYOTA

*Galarza*  
**Automobilak**

Ibargarai 37, Tfnoa: 76 50 99 BERGARA



## KONTU HAUTSIAK

Helduko zela egun bat, eta gaua. Eta agian orduan dena ongi irtengo zitzaizulako esperantza faltsua.

Itxaropena ezin galdu, e Demi? Itxaropenik gabeko gizonek ez dutela bizitza dastatzerik merezi.

Zu beti logelako leihoan, etorkizunari so. Hantxe. Geldo. Orduak eta orduak ematen zenituen auskalo noren zai, zeren zai.

Goiz madarikatu hartan ere ohetik altxatu behar, Demi.

Goiz madarikatu hartan.

Kalera irten eta munduak aurrera jarraitzen zuela sumatu. Kotxez, hiriko entramatuan murgildu zenuen zure burua, Demian.

Demi, Demian.

Telefono bat ikusi eta bertara hurbildu zinen. Lau, zazpi. Beti ere zure emaztearen lagunik onenari eginiko izkutuzko deiak. Zortzi, hiru. Zu, zure emaztea eta Krissy, ze hirukotea!

Zazpi, lau.

Goiz madarikatu hartan Krissy-k ezetz esan zizun, ez zenutela gehio elkar ikusiko. Zure amets zulatua. Ezetz, nazkatua zegoela gorde-mordeka ibiltzeaz.

Berriz ere kotxean sartu, eta inkonszienteki gidatzeari ekin zenion. Lasaitasunaren bila, itxaropen zapaldua ahaztu nahian.

Demi, Demi.

Esperantzarik gabeko gizona.

Ramon.

**BATZOKIA**  
**jatetxea**

Eguneroko menua  
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41

Arrasate



**PEÑACOBATA**  
Auto-Eskola

Zarugalde, 46  
79 14 01

ARRASATE

**ARTE LENIZ**

koadro eta  
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE



■ **Hauteskunde gaua:** Beharbada hauxe izango da kanpaina guztietan unerik zirrargarriena, ikuskizun hutsa, ikuskariak maite ditugunontzat ezin aproposagoa. Bestela esanda, komunikabide elektronikoentzat ezin egokiago egituratutako gaua.

Hautesmahaiaik itxi bezain aguro, lehen proiektzioen ordua. Emisora edo telebista katea bakoitzak berea emango du eta inorenak aipatu. Horrela hasi zen U-29ko gaua ETB eta Euskadi Irratian. Aipatu lehen proiektzio horiek dena den, igandean behintzat oso urruti ibili ziren azkenean erabatekoak bihurtu ziren zenbakietatik. Datu dantza izan genuen, goizaldeko hirurak arte, PSOEn erabateko gehiengoa baieztatu zen arte.

Gau hartan telebistak eta irratiak duten ahalmena erakutsi ziguten, zuzeneko emanaldietan batipat. ETBk eta Euskadi Irratiak egindako lana oso polita eta profesionala izan zen. Nik behintzat, beste zeregin batzuk ere izan arren, oso gustora igaro nuen.

■ **Euskadi Irratia uhin ertainean:** Joan den ostegunean, urriak 26, hasi zen Euskadi Irratia uhin ertainean (UE-OM) emititzen. Uhin ertainak Euskal Herrian irratiak orokorrean duen entzulegoaren %44a suposatzen du. Mokadu ederra, bai horixe Euskadi Irratiarentzat. Oraingo, programazio bera izango dute UEn eta FMn.

Hau ez da lehenengo aldiz Euskadi Irratia UEn sartzan dela, Francoren garaian Paristik eta Venezuelatik ere eman bait zuen. Frantzian zegoela, orduko barne ministraria, Francois Mitterrandek, isil erazi zuen. Oraindik orain ere hainbat hilabetez emititu zuen, Madrilgo gobernuaren baimenik gabe.

Madrilgo gobernuarekin lortutako akordioaren arabera, Euskadi Irratuak sei frekuentzia izango ditu uhin ertainean igortzeko. Horrek zera esan gura du, Euskal Elkarte Autonomoan zehar entzun beharko litzatekeela inongo trabarik barik. Gipuzkoan duen dialaren 105,7an entzun dezakezue. Bizkaian 88,8an eta Araban 95,0an. Ahaleginak egin ditut Euskadi Irratia uhin ertainean harrapatzeko eta, egia esan, oso seinale kaskarra jaso dut. FMn askoz ere seinale garbiagoa du, hortaz, argi daukat non entzun behar dudan. Zorte on, hala ere, uhin ertaineko irrati berriari.

*Joxe Aranzabal*



## gusto baduzu

■ **Hitzetik hortzera:** Joserra Gartziazen eskutik aukera izango dugu hasi berria den Bertsolari Txapelketako kanporaketa guztien gora beherak segitzeko. Igandean 12,45etan.

■ **Jesse James:** Gaizkile honek mito bihurtu zenetik makina bat filme inspiratu ditu. Hona hemen Henry Kingek zuzendutakoa, Tyrone Power eta Henry Foudarekin paper nagusietan. Larunbatean, 15,15etan.

■ **Hiri atxilotua:** II. Mundu Gerran Atenasko hotel batean bizi den oso izaera desberdineko lagun talde baten harremanak azaltzen dira filme honetan. David Niven eta Ben Gazzara. Igandean 11,25etan.

## bideoak



### Lau haizetara

J. A. Zorrilaren filmea, Xabier Elorriaga eta Anne Louise Lambert aktoreekin.

Gernikako hondakinetan Esteban Urkiaga, Lauaxeta, komandanteak ez du soilik hiri paketsua suak nola desegiten duen, bere helburu eta asmoak ere ke artean erreko dira.

## OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

### Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasi-  
koa)

### Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)


### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako graba-  
ketak).



## Ikusi-makusi

Begirada pasatxo batean ea aurkitzen duzun errepikatzen ez den irudia



(Soluzioak: 21. or.)

Mokordo

# Horoskopoa



## ARIES

Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Erantzunkizun oso inportantea duzu eskuartean, baina ez zaude bakarrik, nahiz eta arrakasta zeuk eskuratu, atzean duzun pertsona horri zerbait zor diozu.



## LEO

Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Konfiantza handia hartu duzu jokuetan, zorteak ez zaitu oraingoz bakarrik utziko, baina ez sartu gastu haundietan, azkenean zorrek menperatuko zaituzte eta.



## SAGITARIUS

Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Zure izaera ezkorrak arazo bat baino gehiago sorteraiziko ditu. Arazo hauek gero eta ezkorrago izatera bultzatzen zaituzte. Zergatik ez duzu saltzen kopetilun hori?



## TAURUS

Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Buruan duzun ideia berri horri erakargarria eta arriskutsua deritzozu. Aurrera eraman baino lehen ondo pentsatu, batez ere hirugarren pertsonari min egin diezaie-keelako.



## VIRGO

Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Ez baduzu ezer arriskatzen, ez duzu ezer irabaziko. Ez beldurrik izan, lortuko duzunak izugarritzko poza ekarriko dizu, anima zaitetz.



## CAPRICORN

Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra


Ez zara damutuko erabaki hori hartzeaz. Alderantziz, gelditzen zaizkizun zalantzak desagertuko dira erabat eta inoiz baino hobeto sentituko zara.



## GEMINI

Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Pertsona horrek susmo txarrez segitzen badu ere, zuk ez duzu eritziz aldatu beharrik. Haridagokio zure egoera eta sentimenduak errespetatzea.



## LIBRA

Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Denbora luzez itxoitzen egon eta gero, zenituen planak okertu egin dira. Bi aukera duzu orain: kexatu eta deprimitu ala berriz dena planteatu eta horren alde borrokatu.



## AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Bakarrik egotea ez zaizu batere komeni, denbora gehiegi ematen duzu etxean sartuta gauza berari bueltak ematen. Parranda egitea komeniko litzaizuke.



## CANCER

Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra


Aspalditik zabilta abentura bila baina oraingo honetan aurkituko duzu. Hasieran gogorregi iruditzen bazaizu ere, ez zaitetz korrika irten, zoragarria izan daiteke eta.



## SCORPIO

Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Azaroan egon arren, zu oraindik abuztuko oporretan bizi zara. Errealitatera itzuli, trena galdu nahi ez baduzu. Ohartu amodio hura udako ligea baino ez zela izan.



## PISCIS

Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Sartu zaren egoera oso berria da zuretzat baina ez atzera egin, nahiz eta hasieran goriak ikusi, hemendik denbora gutxi barru txapelduna izango zara.





KIÑU



**MECA**

**Ateak irekita itxaroten zaitugu**



**Meca tailerrak ARRASATE**